

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA

Heldu da hitzarmen berria bozkatzeko tenorea

Abenduaren 11n izanen da Euskararen Erakunde Publikoaren biltzar nagusia eta orduan bozkatu beharko dituzte aurrekontua eta hitzarmen berria. Euskaigintza zein EEP bera, guztiak ados dira errateko gaur egungo hizkuntza politika ez dela nahikoa euskararen galera behar bezainbeste frenatzeko eta euskal hiztun berriak sortzeko. Guztiak ados

dira errateko bultzada berri bat eman behar zaiola hizkuntza politikari. Hor arte guztiak ados dira, baina bideratu beharreko sosaz hitz egiterakoan, uzurtasunak eta desadostasunak nagusi dira. Egoera blokeatuta izanda, urte bateko negoziazio fasea abiatu zuten iazko abenduan. Bururatu zaie elkarriketarako tarte eta biltzar nagusian jakinen da emaitza.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bukatu zaie egoera desblokeatzeko xedez jarritako urte bateko negoziazio fasea eta abenduaren 11n jakinen da emaitza: Euskararen Erakunde Publikoaren biltzar nagusia izanen dute, eta aurrekontuaz gain, hitzarmen berria ere izenpetuko dute. Berebiziko inportantzia izanen du bilera horrek, bere horretan EEPren geroa –eta hortik Ipar Euskal Herriko hizkuntza politika– delako mahai gainean.

"Zaila da irudikatzea EEPrik gabeko errealitate bat 2026rako, beraz pentsatu nahi dut korapiloa askatzeko aukera adostuko dutela", dio Ihintz Oliden AEK-ko koordinatzaileak. Bere gisara, euskaigintzako eragile guztiek diote arreta handiz begiratuko biltzar nagusi horri, finean, beraien geroa ere jokatu delako bertan. 3,5 milioi euroko aurrekontuarekin, lan ardatz propioak baldin baditu EEPk, diruaren zati handi bat doa euskaigintzako eragileengana. Baina, afera da

hizkuntza politika eraginkor bat aitzina eramateko, aurrekontua bikoiztu beharko litzatekeela euskaigintzako egiturak barnebiltzen dituen Euskal Konfederazioaren arabera. Badu urteak baliabideen emendioa galdatzen dabilela euskaigintza, hain justu ere, beharrak garatu egin direlako. Alta, 2017az geroztik ez da xentimo bakar batez emendatu diruztatzea, eta egoera geroz eta prekarioagoan, ahal bezala dabilta aitzina.

Hein apalagoan bada ere, EEPk ere dio oraingo aurrekontua eskasegia dela: hizkuntza politikarako beharrak zehaztu zituzten 2023ko uztaillean eta aurrekontua %65ez emendatzea ondorioztatzen zuten; hau da, kide bakoitzak 650.000 euro gehiago ezartzea. Adostasunik ez zutenez lortzen, 300.000 eurora apaldu zuten eskaera. Lau kidez osatuta dago erakundea –Euskal Hirigune Elkargoa, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Akitania Handia Eskualdea eta Frantzia-

ko Estatua– eta hein bereko ekarpena egin beharra daukate lauek. Gaur egun, bakoitzak 850.000 euro bideratzen dizkio EEPri –eta kasuan kasu, nahi duenak bideratu dezake bereber diru gehiago ekimen berezi batzuetara–. 2024ko ekainean aurkeztu zuten Ipar Euskal Herriko euskal hiztun kopurua %30era heltzeko prospekzio soziolinguistikoa. "Dokumentu inportantea", Euskal Konfederazioko Sebastien Casteten arabera: "EEP sortu denetik leporatzen diogu helburuak ez dituela denboran plangintzatzen. Beraz *Euskara 2050eko epemugan* bide orria, berez, baikorra da. Orain galdera da: nola lortzen dugu %30eko helmuga? Zein aurrekonturekin?".

Kide guztiek beharrezkotzat jo arren emendioa, oraingoz bakarrik Euskal Hirigune Elkargoak du ekarpena 650.000 euroz emendatzeko engaiamendua hartu. Hori horrela, diru emendatzerik gabeko aurrekontua bozkatu zuten apirillean.



EUSKAL KONFEDERAZIOA

2017az geroztik ez dute emendatu EEPren aurrekontua. 650.000 euroz emendatu beharko luke EEPko kide bakoitzak bere ekarpena, baina oraingoz horrelakorik ez dute adostu –bakarrik Euskal Hirigune Elkargoa da horretarako prest agertu–. Hori horrela, hizkuntza politika ausart bat bideratzeko baliabideak eskatzeko protesta egin zuen euskalgintzak uztaillean.

"Momentuan aterabiderik ez dugu ikusten, eta hori da arazo politiko nagusia: badakigu zer den helburua, badakigu nondik pasatu behar den, badakigu zenbat kosta duen, baina nehor ez da kapable horri erantzuteko", aitortu zuen egun horretan Antton Curutcharry Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikarako lehendakariordeak. Maider Behoteguy EEPko lehendakariak, haatik, "urtean zehar egoera desblokeatu daitekeela" adierazi zuen. Baina urtea pasa da eta ez da desblokeorik gertatu. Alderantziz: EEPko kideen iragarpenek zein adierazpenek argi uzten dute hizkuntza politikan salto bat emateko nahikaririk ez dagoela.

Euskal Konfederazioak behin baino gehiagotan egin ditu protestak euskarari bideratu beharreko begirunea azpimarratzeko eta nola ez, EEPko kideen partetik jasotako trufa salatzen. Azkena, uztaillean, *Euskarari trufarik ez* lelopean, Estatuak iragarritako 100.000 euroko emendio aukerari erantzuteko. Parisetik jasotako mezuak ez zuen gatazka konpontzeko balio izan; ezta EEPko presidentearenak ere: "Estatuaren purruxkak eskertu, eta besteei hein bereko ekarpena

egin dezaten galdegin die, lotsarik gabe. Eta, gainera, justifikatu du erranez instituzioen baliabideak mugatuak direla eta euskarari ematea beste batzuei kentzea litzatekeela. Onartezina da euskararen politika publikoen sustatzailer nagusi izan behar duen ordezkariak halako adierazpenak egitea", ohartarazi zuen orduan Euskal Konfederazioak. Euskal Hirigune Elkargoa ere kexu agertu zen, eta mehatxua luzatu zien: "Baldintza hauetan" ez dute EEPren hitzarmen berria izenpetuko. Horri ere, mespretxuz erantzun zion Pirinio Atlantikoetako prefetak: "Elkargoa sortu aitzin ere bazen EEP. Erakundearen berritzea ez sinatzeak ez luke [EEPren] bukaera adieraziko".

Horretan gaude beraz, eta erreportaje hau idazten ari garen unean behintzat ez da zabaldu abenduaren 11ko biltzar nagusian bozkatuko denaren berri. Sukalde lanean dabilta diskrezio handiz, eta euskalgintzak sinetsi nahi du aterabide bat adostea dutela kide guztiek lehentasuntzat. Finean, horren arabera izan delako biharko hizkuntza politika.

Hogei urte bete ditu aurten EEPk, eta egingako bidearen balorapena egitera-

koan, gozoa bezainbat gazia azpimarratzen dute euskalgintzako eragileek. Nola ez, Ipar Euskal Herriarentzako hizkuntza politika bat izatea bera da biziki baikorra, 2006 urtea aitzin horrelakorik ez zelako; eta emaitzak ere hor dira: euskarazko irakaskuntza garatu egin da lurralde osoan –murgiltze sisteman zein elebidunean–; euskal hiltunen galtzea gelditu da; nabarmena da euskarari buruzko jendearen harrera baikorra... Baina aldi berean, hizkuntza politika bideratzeko tresna hori "azpi-dimentsionatuta" dela dio Castelek: "Baliabideak eskas ditugu, dirua eta legea". Dioenaz, "gibetik ibilki dabilta instituzioak", eta euskalgintza dabil, ordea, kosta ahala kosta, egoera prekario batetik herritarren beharrei erantzuten.

"AZPI-DIMENSIONATUA"

EEPk azken urtean bizitako blokeoa poto-loa da, baina, berez, iraganean ere ezagutu ditu horrelako krisiak. 2005ean sortu zen EEP, eta hortik gutira osatu zituzten hizkuntza politikaren lerro nagusiak, euskalgintzaren ekarpenetan oinarrituta. 2009an Frantziako Gobernuak ikuskariek EEPren lanari buruzko bilduma egin

zuten; eta beraien arabera, hiru ildo garatu behar zituen erakunde publikoak: hasitako lana segitzea, euskalgintzarekiko lankidetzat sendotzea eta EEPren lantaldea azkartzea. 2010ean onartu zuten *Jokabide esparrua* izeneko bide-orria, 2016 arte balioko zuena. Baina, jadanik ahulguneak ikusten zizkion Euskal Konfederazioak eta EEPren hizkuntza politikak "sabaia" jo zuela adierazi zuen prentsaurreko bidez 2011ko abenduan: "Sortu zelarik, adierazi genuen gure iritziz tresna interesgarria zela EEP baina muga nabarmenak zituela. (...) Borondate onaren gainean oinarritu hizkuntza politikak mugak ditu, euskara ez delako hizkuntza ofiziala eta hizkuntza legerik ez zegoelako lege babesik". Hortik lau urtera aterako ziren elkarlanerako esparru izateko funtzioa zuen Kontzertazio Batzordetik Euskal Konfederazioa eta Euskalgintzaren Kontseilua. Aurrekontua emendatu ez izana, hizkuntza politikari bultzada berri bat emateko nahikeria eza... hots, gaur egungo kritika berberak presente ziren duela hamar urte.

Ageriko da zer ekarriko duen abenduaren 11ko biltzar nagusiak, baina irailaz geroztik EEPko zuzendari berria den Ttito Betbederrek elkarrizketan [ikusi 29-31 orrialdeak] dioen gisara, etorri da, agian, garaia EEPren funtsari begiratzeko: "Taburik gabe mintza gaitzen: tresna egokia izaten segitzen du? Poliki-poliki galdera horiek agertzen zaizkigu eta ez da baitezpada txarra". Nahi edo ez *Euskara 2050eko epemugan* txostena mahai gainean dutelako. Hitzun kopurua %30era iristeko prospekzio soziolinguistikoa aurkeztu zuen EEPk 2024ko ekainean; eta bilakaera demografikoan eta inkesta soziolinguistikokoaren emaitzetan oinarrituta, 40.000 euskal hitzun gehiago beharko lirateke 2050ean

%30eko langara heltzeko. Arazoa da, gaur egungo aurrekontuarekin segituz gero, ezinezkoa luketela. Funtsean, euskalgintzak aitzin, 2023ko urrian galde-tu zion helburu hori lortzeko hizkuntza politika ausart baten gauzapeña. Orduraz geroztik egoera blokeatuta dago, eta abenduaren 11ko bozketa nolazbait eskaera horri ematen zaion erantzun gisa hartzen ahalko da: edo, gaur egungo aurrekontuarekin segitzen da eta Euskal Konfederazioak erran bezala "euskara hiltzera kondenatzen" da, edo, %30eko helburua iparrorratz hartuta aurrekontua behar bezala emendatzen da.

2050ean hitzun
kopurua %30era
iristeko prospekzio
soziolinguistikoa
aurkeztu zuen EEPk
2024an. 40.000 hitzun
gehiago beharko
lirateke

OFIZIALITASUNA ESKAS

EEPri eta hizkuntza politikari begiratzearaz gain, euskalgintzari ere begiratu behar zaio, betidanik izan delako norabidearen markatzaile eta instituzioen akuilatzaile. 30 urte bete dituela, urtarrelean abiatu zuen barne-gogoeta Euskal Konfederazioak, eta hainbat helburu ditu zerrendatuta: koofizialtasunaren eta lege koadroaren gaia berriz mahai gainean jartzea; euskal hitzunak masi-

boki sortzeko hizkuntza politika ausarta eta horretarako baliabideak lortzea; herritarren aktibazioa eta eragile berriak Euskal Konfederaziora sarraraztea. "Koofizialtasunaren gaia berriz ekarri nahi dugu lehen lerrora, azken urteetan pixka bat bazter gelditu delako. Pedagogia handiz eta ongi komunikatuz aitzinera eraman behar dugu gaia, Ipar Euskal Herriarentzat behar dugulako hitzunen eskubideak bermatuko dituen lege koadro bat", Olidenen arabera.

Frantziako Estatuak hizkuntza gutxituen alde dabilzan egiturak batzen dituen *Pour que vivent nos langues* (Gure hizkuntzak bizi daitezen) elkarteak Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua aldatu beharra berretsi berri du Baionan egindako prentsaurrekotik. "Frantsesez mintzo den pertsona bat bere hizkuntzan normaltasun osoz bizi daiteke eguneroan, baina aukera hori ez da juridikoki aitortua lurraldeetako hizkuntzetako hitzunenentzat. Errealitate horrek berez trabatzen du herritarrek dagokien lurraldeetan hizkuntzak berreskuratze-ko abiatutako prozesua. Ondorioz, gure hizkuntzak ez dira osoki bizi, eta lurralde anitzetan, justu-justu bizirauten dute". Bizkitartean, hizkuntza gutxituak babesteko lege orokor bat lantzen hasiko da elkarteak. "Ideia da koadro legala ematea, bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak juridikoki finkatzea; hizkuntza gutxituen garapena juridikoki segurtatzeko, instituzio guztien betebeharrak finkatzeko eta hortik, hitzunen hizkuntza eskubideak errespetarazteko", Casteten azalpenei segi. Lan juridiko horri lotuko dira, nahiz eta jakin, beste behin parean kausituko dutela Paris, 2. artikulua sakratua esku artean... Baina ez dira etsipenaren zulora erortzen, eta indarra biltzeko, herri mobilizazio potolo bat aurreikusten dute 2026ko udazkenerako.



Irurako udala

San Migel plaza 1, 20271

udala@irura.eus

www.irura.eus

“ ”

Hizkuntza politikari bultzada berria emateko beharra ez da zalantzan jarria

Ttitto Betbeder
EEP-KO ZUZENDARIA

Irailaz geroztik Euskararen Erakunde Publikoko zuzendari berria da Ttitto Betbeder. Krisi potolo baten erdira egin du salto eta egoera desblokeatzea da bere lehen betebeharra. Gogotsu dago. Abenduaren 11 du epemugatzat berak ere, orduan bozkatuko dituztelako aurrekontua eta hitzarmen berria. Beste erronka batzuk ere badituela dio, tartean, euskalgintza eta EEPren arteko elkarlanaren berrabiaraztea.



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Krisi baten erdi-erdian hasten duzu zuzendari misioa. Nola doa?

Hogei urtez anitz aldatu bada ere, nahi dut zehaztu EEP tresna ezagutzen dudala. Lehen lantaldeko kide izan nintzen, hizkuntza kargudun gisa. Ondotik, beste asmo batzuk gogoan, Euskal Irratietan sartu nintzen, hau da, euskalgintzan, eta hortik, Frantziako Irrati Libreen sindikatura egin nuen salto. Orain berriz interesa piztu dit EEPk, hain justu, testuinguru orokorragatik. Kanpotik ikusita aski nahasia dirudi, erronka handiz beteta; baina nik aukerak ere ikusten dizkiot. Hizkuntza politikaren garapen handia egon da, EEPri baita euskalgintzari esker ere; baina azken urteetan aitzinamendu gutxiago ditugu. Inpresio gazi-gozoa dut, eta uste dut Euskal Herri osorako balio duela irakurketa horrek. Hizkuntza politikei

bultzada berri bat emateko beharra badugu, eta aukerak ikusten ditut.

Euskal Irratien bidez Euskal Konfederazioko kide izandakoa zara. Euskalgintzan izandako esperientziak lagunduko zaituela uste duzu?

Argi da ez didala trabarik gehituko, alde-rantziz, ikuspegi bikoitza izate hori baikorki baloratzen dut. Gure hizkuntzaren errealitatea kontuan hartuta, beti sinetsi izan dut bi hankak ditugula beharrezkoak, euskalgintza soziala eta publikoa. Bakarrik instituzio publikoetatik ezingo genuke hizkuntza politika eraginkor bat ukan eta hizkuntza politika publikorik gabe euskalgintzak ezingo luke bataila hori eraman. Gure erronka zera da: nola lortu bien arteko eraginkortasuna? Hastapenetan bi aldeen arteko kontzer-

tazio gune bat egon zen, baina ez zuen beti ongi funtzionatu eta 2016an Euskal Konfederazioa atera zen. Kontzertazio gune hori berriz eraiki beharko genuke, hori badut erronka pertsonalen artean. EEPko kideen artean aipatzen den gai bat da. Berez, elkarlana badugu sektoreka edota gaika; orain behar duguna da orokorki, hizkuntza politika eraginkor baten alde doana.

Egingarria ikusten duzu?

Badira oztopo batzuk. Batetik, konfiantzarena, berriz eraiki beharrekoa. Bestetik, aurrekontuen inguruko eztabaida hor dago eta gure hitzarmen sortzailea ez da arraberritua izan; eta horrek dakar hainbat hitzarmen ez direla berri-tuak izan –Hezkuntza Nazionalarekila-koa, Seaskak Hezkuntza Nazionalarekin duena...-. Oztopo horiek gainditzen ez



dituguno, nekez egingen da elkarlana. Korapilo horiek askatzea edo behintzat, askatzen entseatzea da nire misioa. Lortuz gero, uste dut aukerak izanen direla; elkarrekin lan egin beharraren kontzientzia denek partekatzen dutelako.

Hitzarmena urte batez luzatua izan zen, adostasun batera heldu nahian. Urtea pasa dela, zertan da egoera?

Egoera biziki nahasia eta nahiko blokeatua izan da. Hala ere, irailaz geroz solasaldiak berriz abiatu ditugu, ikusteko intentzioei begira zertan garen. Galdera argia da: nahi da EEP tresnarekin segitu? Zein baldintzetan? Aterabide bat atzeman nahian gabilta. Aitzinatzen gara eta epe muga abenduaren 11ko biltzar nagusia dugu. Aurrekontua eta hitzarmena bozkatuko ditugu.

Sukalde lanetan zabiltzate beraz.

Errealitatea ikusita, baikorki erran dezakegu behintzat sukalde lanak badirela. Biltzar nagusiko iragarpenak eta gero, erabat gelditu zitezkeen negoziaketak, baina ez da horrelakorik gertatu.

Ez bada adostasunik lortzen, EEP desagertzeko aukera hor dago?

Ez dakit zer erran. Baina, finean, erantzun horrekin erraten dizut ez dugula aukera hori landu. Zer gertatu daitekeen abenduaren 12an? Bakoitzak behar du ongi

pisatu bere erabakiaren eragina. EEPren ekarpenak zein diren badakit, badakit ere zein dituen mugak eta zein liratekeen eman beharreko hobekuntzak. Tresna hori gabe zer genukeen? Momentuko ezin dezakegu erantzun.

Baina, berez, gertatu daiteke.

Eginahal guziak bideratzen dira hizkuntza politika publiko azkar bat atxikitzearen alde. Ene erantzunarekin ulertuko duzu hori ez diodala baitezpada bakarrik EEPri lotzen. Ipar Euskal Herriarentzako hizkuntza politika azkar baten beharraz kontziente gara denak; hori ez da zalanztan jartzen eta hori biziki inportantea da. Hori bideratzeko EEPekin segitzen dugu ala ez? Ez dut erantzun argirik, baina uste dut geroari begira, hor dugula benetako galdera. Hizkuntza politika azkar baten beharraz denak gara kontziente eta epe ertain eta luzera begira jarrita, horretara heltzeko bide egokiena hautatu beharko dugu.

Bi tempo ezberdin ditugu hor: gogoeta horrek denbora galdatzen du eta euskalgintzako egiturak presaka eta egoera prekarioan dabiltzala aitzina.

Bai, hori da korapiloa.

Lau kidez osatua da EEP [Estatua, Eskualdea, Departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoa]. Aurrekontuari

dagokionez, ez dira asmo beretan. Kasu horretan nola egin daiteke aitzina?

Amankomunean dugun oinarri minimoa atzeman behar dugu. Printzipioz –ez edozein baldintzetan baina– denak ados dira errateko oraingoz EEP dela hizkuntza politika bideratzeko tresna egokiena. Ez naiz etorkizunaz mintzo. Baliabideei buruzko desadostasunak borondate eskasari lotuak direla baieztatzea neke zait. Estatuaren egoerak argiki aferra zailtzen du; eta ez bakarrik aurrekontuari dagokionez. Denboran irauten duen ministeritza bat lortzea konplikatu da gaur egun, eta solaskide finkorik ez izate hori bera da arazo bat. Bestalde, dena ez da dirua. Hizkuntza politika bat aitzina eramateko beste osagai batzuk ere behar dira. Nahi izanez gero, dugun aurrekontuarekin aitzinamendu batzuk bideratu ditzakegu, dela irakaskuntza edota eguneroko bizi sozialean. Baina aurrekontuari dagokionez egoera nahasia denez, esparru horietan ere sendi da blokeoa. Horregatik dugu oinarri amankomun hori identifikatu behar, hortik berriz abiatu ahal izateko. Berriz diot hizkuntza politikari bultzada berria emateko beharra ez dela zalanztan jarria. 2050ari buruzko prospektibarekin kontzientzia hartze bat gertatu zen: denek dakite gaur egun bezala segitzeak zertara garamatzan eta denek dakite egoerak hobera egiteko zein den bidea.

“ ”

**Taburik gabe mintza
gaitezen: tresna egokia
izaten segitzen du
EEPk? Poliki-poliki
galdera horiek
agertzen zaizkigu
eta horiei begira
jartzeko momentua
etorri zaigu**

**Adostasuna lortzeko bidean, ez da
baitezpada eraikigarria prefetak
erran izana Elkargoa egon edo ez
EEPk segituko lukeela...**

Momentuz, lauen arteko kohesioa atxiki nahian gabilta. Bakoitzak hartuko du bere erabakia eta ondotik galdera izanen da: nola egin hizkuntza politika eraginkor bat izateko. Duela hogeitaz beste egoera batean ginen eta egia da ez zela Elkargorik. EEP orain sortu bagenu, horrelakoa izanen zen? Ez dakit. Begira diezaiogun EEPk hogeitaz egindako bideari. Hizkuntza politikaren emaitza onak ezin dira bazterrean utzi –irakas-kuntza arlokoak, inkesta soziolinguistikoek erakusten digute euskal hiztunen galtzea gelditu dela...-. Baina momentu berean, taburik gabe mintza gaitezen: tresna egokia izaten segitzen du? Poliki-poliki galdera horiek agertzen zaizkigu eta horiei begira jartzeko momentua etorri da. Gainera, Euskal Herri osoan ditugu galdera berak, nahiz eta egoera ezberdina izan.

**Euskal Hirigune Elkargoak ere badu
bere hizkuntza politika. Zer nolako
harremana dago bi egituren artean?**

Duela zenbait urte eraman zen lan bat argitzeko nork zer egin behar zuen. Garatu ahala oraindik ere bada argitze behar hori. Ez gara zeingehiagokan, elkarlana hobeki antolatu nahian gara.

**2050erako euskal hiztunak %30
izatea helburutzat hartuz gero,
zein lirateke hizkuntza politikaren
ardatz nagusiak?**

Euskara 2050eko epemugan txostena egiterakoan batez ere hiru faktore hartu ziren kontuan: irakaskuntzako datuak, jarraipen tasa –lehen mailatik bigarren mailara arteko saltoa– eta helduen euskalduntzea. Lehentasuntzat kokatu ziren, nahiz eta ez diren bakarrak, dakigulako euskaldunek ekosistema oso bat behar dutela, ondotik baliatu ahal izateko. Helduen euskalduntzerako argi da baliabideak behar direla, gau eskola gehiago, formatzaile gehiago... Haurren irakaskuntzarako ere, baina gurasoei interesa piztearen erronka hor da. Gure diskurtsoak landu behar ditugu eta bai, baliabideak behar ditugu baina uste dut dagoenarekin ere egin dezakegula zerbait. Egoera soziolinguistikoari dago-kion diskurtsoa landu behar dugu, baita euskalgintzarekin ere. Ipar Euskal Herrian kanpotik etorritako 3.000 biztanle gehiago ditugu urtero. Erronka horri erantzutea izan behar litzateke hizkuntza politikaren lehentasunen artean.

**Hizkuntzaren aitortzarik gabe zaila
da. Ofizialtasuna bada EEPren baitan
presente den gai bat?**

Egunerokotasunean ez dugu aipatzen eta ez da gure misioetan. Gai politikoa da eta politikariei dagokie hori eramatea. Aldiz erran nezake zeharka, nahi

edo ez, aipatzen dugula. Hau da, teknikoki elikatzen dugu; blokeoak direnean agerian gelditzen dira legearen mugak. Erran nezake gai horri begira aitzinamendu handiak izan direla hautetsien partetik eta kontsentsu handi bat dagoela orain Ipar Euskal Herrian. Azkenik, hizkuntza gutxituei buruzko txosten bat aurkeztu berri du Senatuan Max Brissonnek.

**Eztabaidak elikatzen ditu lege-babes
eskasa agerian uzten duelako?**

Bai. Blokeoek gaia mahai gainean jartzten dute eta hautetsiek hartzen dute beraien gain. Euskarazko murgiltze ereduaren esperimentazioari dagokionez, hori gertatu zen 2020an, Hiriburuko eskolatik eraman borrokarekin. EEPtik landu zen gaia, baina legeari segi blokeoak agertu ziren eta hautetsiek hartu zuten gaia; egoera desblokeatzea lortu zuten. Geroztik murgiltze sistema zabaltzen ari da, alta, duela bospasei urte hori ezinezkoa zitzaigun.

**Hego Euskal Herriko instituzioekiko
elkarlana nola doa?**

Uste dut gehiago egin daitekeela; ez baitezpada orain artekoa gaizki egin delako, baina bai beharra hor dagoelako. Euskalgintza publikoa eta soziala biak beharrezkoak diren bezala, elkarlana behar da hegoaldearen eta iparraldearen artean. Konbentzitu naiz. Baga-biltza, baina elkarlan hori are gehiago sakondu behar dugu. Borondatea sendi da eta gainera, aukerak daude. Hala ere, Elkargoarekin dugun erronka bera ikusten dut: denbora behar da elkar ontsa ezagutzeko eta argitzeko bakoitzak ekarri dezakeena. Baina borondatea bada, beraz segi dezagun, euskara Ipar Euskal Herrian ez dugulako bakarrik Ipar Euskal Herritik arituz salbatuko. ●

